

# BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa FLYROOM deitzen da, eta gu Iker Simon, Aimar Labaka, Andoni Garrido eta Galder Viegas gara. Gure zerbitzua aireportuetan eskuragarri izango da. Denbora pasatzeko edo lo egiteko kabinak sortuko ditugu, logela txikiak. Horrela, bidaiari askori arazo ugari sahistuko dizkiegu. Izan ere, askotan, hegaldiak atzeratu edo bertan bera geratzen dira, eta hau gertatzen denean, bidaiariek hoteletara jo behar dute. Ez dute beste aukerarik, horregatik, hotelak egoeraz aprobetxatu egiten dira eta prezio oso garestiak jartzen dituzte etekinak handituz. Askotan gainera, aireportutik urrun daude hotelak, eta ez da batere eroso haletara joan behar izatea.

Gure kabinak aldiz, askoz ere merkeagoak izango dira. Ordu baikoitzaitzak 3 euro kostatzen ditu eta gau osoak (22:00etatik 08:00etara) berriz, 15 euro. Horrela, arazoren bat baduzu eta bertan lo egitera geratu behar bazara, askoz gutxiago ordaindu beharko duzu.



Gainera, aireportuan beran aurkitu ahal izango dituzu, beraz askoz ere erosoagoa izango da bertan geratzea urrun dagoen hotel batera joatea baino. Beraz, bezeroei dirua eta lana errazten lagunduko diegu.

Gure enpresa oso berritzailea ez bada ere, Europan aitzindaria da, Japonen bakarrik baitago zerbitzu hau. Ondorioz, Europan oso berritzailea izango da, eta jende asko erakarriko du. Beraz, oso erraza izango da arrakastatsua izatea. Ideia aurrerakoia dela uste dugu, gainera etorkizun hon bat izango duena, eskaintzen duen erosotasun eta prezioarengatik.

Gure marka eta enpresa azkar handitzea espero dugu. Uste dugun arrakasta izatera iristen bada, enpresa denbora laburrean, asko handituko da, eta gure marka geroz eta

ezagunagoa bilakatuko da. Hortik abiatuta, markak ospe handia lortzen badu, eta ekonomikoki etekin ona lortzen badugu, gure ideia da Europako aireportuetan ez ezik, Hego-Amerikako aireportuetan ere gure zerbitzua eskaintzea. Guzti honen ondorioz, gure markak estatus altuagoa bat eskuratzea lortuko du.

Gure kabinen diseinuari dagokionez, material berriztarriekin egingo dira, Lur planetaren etorkizuna babestuz. Kabinaren barnealdeak landetxe itxura izango du, eta koltxoia eta kuxinak material berriztagarriekin egingo dira. Hauek kokoaren fibraz, artilez, kotoiez eta latex naturalez eginak daude, *Hannun* enpresarekin harremanetan jarriko gara, haiek gu hornitzeko. Kanpoaldea berriz, Roblez egingo dugu eta insonorizatu egingo dugu bezeroen erosotasuna bermatzeko.

